

Herrira-ren kontrako polizia operazioa >

Haserre daude herritarrak, Herrira-ren kontrako operazioarekin Espainiak erakutsi duen jarreragatik. Haserrea erakustera joan dira Bilbora, atxilotuak aske egoteak emandako poz txikiarekin.

Haserrea eta poza eskutik

Oihana Elduainen Bilbo

Haserrea eta poza elkar hartuta ibili ziren atzo Bilbon. Haserre zegoen jendea. Haserre, Herrira-ren kontrako operazioagatik. Haserre, Espainiatik datozen «erasoengatik». Baina pozik, astelehenean atxilotutako hamazortzi lagunak ez dituztelako giltzapetu. Bilbon ziren. Denak batera agertu ziren, berreniki urdinekin, erabateko talde itxura emanez. Pozik, baina nekatuta. Eta egoerarekin kezkatuta. Besarkadak, animoak eta goxotasuna jaso zuten. Haiek ziren atzoko poza, eta haiek marrazten zuten irribarrea jendearen aurpegitan. Baina, zerbait galdetu orduko, haserrea ateratzen zen.

Mutrikutik etorri zen Jabitu Larrañaga, kuadrillan. Manifestazio buruaren zain, tantak eskuan eta oihuak ahoan: «Benetan iruditzen zait ikaragarritzko injustizia egin dutela. Operazio honek atzera bueltatu gaitu, urte asko, gainera. Kristoren injustizia da, eta horren aurka hemen egon behar genuela iruditzen zait. Eta ez gu, denok egon behar genuke hemen. Iritzi askotako pertsonak falta dira hemen. Poparik mugitzen ez dutenak falta dira hemen, horiek. Eta benetan ordua da. Adinean aurrera goaz, eta hau horrela ezin daiteke jasan». 66 urte egitera doa.

Gazteagoak ere haserre zeuden. Oroitzen dira aurrez gertatutako, eta ez dute berriz gertatzetik nahi. 21 urte ditu Amaia Cambrak. Iruñeko da, eta lagunekin joan zen manifestaziora. «Oinarritzko eskubideak defendatzera etorri gara. Aitzineko garaietara ez bueltatzeko. Euskal Herriak egiten duen edozein mugimendu ez kriminalizatzea eskatzeko». Herrira-ren kontrako operazioa horixe izan dela uste baitute.

Xabier Zubizarreta Arrasateko alkate ohia ere jende artean zegoen, Herrira-ko niki urdina soinean. Gertutik jarraitu du operazioa, Ekain, bere semeetako bat atxilotu baitzuen Guardia Zibilik astelehenean, Andoainen. Badauki ordea arlo pertsonala eta politi-

koa ez nahasten: «Hemen nago, batetik atxilotuen gertutasunagatik. Etxeko bat dagoenean modu biziagoan bizitzen da halako egoera bat. Baina, horretaz aparte, Euskal herritar moduan ere hemen egotea tokatzen zaigu, bereziki. Badirudi Espainiako Estatuaren intentzioa izan dela Herrira-k probokatu duen uholde herritarra geldiaraztea, eta horrek esan nahi du justu kontrako egin behar dugula herritar moduan. Uholdeari bultza egin, eta herritar moduan olatu horiek gero eta handiagoak egin».

Bazen ura bai, Bilbon. Zeruak tantarik ez ematea erabaki bazuen ere, eskuan izan zituen jendeak tantaren irudia zuten kartelak. Eta badaezpada eramandako aterkiei probetxua ere atera zion jendeak. Askok eta askok, aterkiaren muturrean zuloa eginda jarri zituzten tanten kartelak, ondo gora altxatzeko. Jokoa eman zuten kartel horiek. Manifestazioaren atzealdean, hiru lau-

bat gizon eskuan zituzten kartelak markesinetan pegatzen aritu ziren, manifestazioko bertako itsasgarriak zelo moduan baliatuta. Haien inguruan, kartelekin turutak egin eta oihuka zebiltzan ume batzuk.

Izan ere, manifestazioaren aurre aldeko masa eta kabitu ezinez atzerago lasaiago zegoen giroa —antolatzaileek nahiko lan izan zuten pankartaren aurrean topatzen zuten jendea baztertzen, hark bere bidea egin zezan—. Ume asko zegoen, ume-kotxe asko. Bi haurrekin joan zen Alaitz Birizuela zornotzarra. Soinean zeraman bat, umeak lepoan emateko motxilan, «tanta txikiak» ere eramatea erabaki baitzuen. «Denok egin behar dugu ahalegin bat, eta gaurko leloak esaten duen moduan, tantaz tanta, olatu handi bat egingo dugu, eta ea, denok batera ekartzen ditugun euskal presoak Euskal Herrira, eta etxera. Mobilizazioa beharrezkoa da, eta herria ez bada mobilizatzen ez da-



Milaka lagun elkartu dira Bilboko kaleetan. LUIS JAUREGALITZ / ARGAZKI PRESS

Apologia delitua



Iritzia

Jon Mirena Landa

EHUko Zigor Zuzenbideko irakaslea

Terrorismo-delitua goratzea omen da Herrira-ren aurkako instrukzioa aurrera eramateko oinarria? Hori izan zen burura etorri zitzaizkan lehenengo burutzioa, agian zuzenbide penaleko irakaslea naitzen aldetik, begiratzeko modu bixiak baldintzaturik. Goratzea edota justifikatzea bada aditza, baina zer goratu edota justifikatu? Horra hor arazoa, zigor-legeak sortu duen arazoa alegia. Izan ere gauza bat da *delitu*, jakin bat goratzea eta beste gauza bat per-

tsiona bat goratzea. Apologia delitua jada mugan dago: alegia zuzenbide penalak debeka dezake mugan, adierazpen askatasuna kinka larrian jartzen du eta. Baina apologia zenbat eta zabalgia izan, hainbat eta handiagoa ere izango da zuzenbide penalak gure adierazpen askatasuna murrizten duen neurria... giza-eskubide hori bera hiltzeraino. Apologia-neurgailu bat balego, lehenengo mailan delituen apologia izango litzateke. Bigarren mailan pertsonen apologia dugu: hemen jauzia itzela da. Ezin al da inoiz modu publikoan holako delitua egin duen pertsona goratu? Ezin al dira halako sentimentuak modu publikoan erakutsi? Ezin egin delituaren apologia denik. Baina jarri lotzen ez bada ere? Hirugarren mailan biktimak edota horien senideak umiliatzeko, gutxiesteko edo haien izen ona zikintzeko debekua dugu. Hirugarren honetan

bereziki kontuz ibili beharra dago, izan ere biktimekin beti minberak izan behar bait gara. Arazoa ez da hortan legearen helburua, baizik eta debekua interpretatzeko modua: nork erabakitzen du zer den umiliatzea, izen ona zikintzea? Noraino eraman nahi dira kontzeptu horiek? Apologia-delitua, hortaz, terrorismoaren kontrako borrokan mugarik ez duen debeku bilakatu da, diskurtso politiko jakin batzuk isilarazteko erabilia. Apologia-delituak, hain zabala izanik, iparra galdu du, segurtasun juridikoa lehertaraziz, justizia suntsituz.

Baina apologia ez da kontu bakarra. Apologia asko antolatzea terrorismoa al da? Ez dut esaten apologia antolatu denik. Baina jarri deizaiogun atxiloteta eta instrukzioaren logikari. Kontutuzioa Auzitegiak aspalditik, 199/1987ko epaiaren bitartez hain zuzen ere, garbi baino garbiago utzi zuten

apologia-delitua ezin dela terrorismo-delituarekin parekatu. Aipatu epaian 1984ko terrorismo-legearen konstituzio kontraketakotasuna aztertzen aritu zen auzitegia eta konklusio batera iritsi zen: lege horretan arautzen ziren salbuespeneko neurriak (atxiloketa-epe bereziak, inkomunikazioa etabar) ezin ziren apologia-delitutara aplikatu. Eta horren ondorioz apologia-delitua egiten duenari edota hura antolatzen duenari ezin zaien egotzi terrorismo-taldekide izatea. Agian horregatik atxilotuak epaile aurrera eramantuzte inkomunikatu gabe, eskubide horien suspensio salbuespeneko guztiz ez-proporzionala izango litzatekeelako.

Azkeneko hausnarketa. Estatuaren gehigekeriaren aurrean, Estatuaren abusuaren aurrean, indarkeriaz ez baizik eta arrazoi bidez erantzuneko gero, epe motzean ematen du ez dela ezer lortzen. Epe luzean, ordea, zentzuzko gehiengoaren tentsioa lortuko da eta horren bitartez benetako justizia berrezartzeko aukera.